



BILBOKO PORTU-AGINTARITZAREN KONTSULTA, LURREKO ERREPIDE BIDEZKO SALGAIEN GARRAIO-ZERBITZU KOMERTZIALERAKO BAIMENEN BALDINTZA- AGIRIAREN ALDAKETARI BURUZKOA

281-SUST-2018 LEA proiektua

Laburpena:

I.	KONTSULTAREN AURREKARIAK ETA XEDEA.....	1
II.	LEA-REN ESKUMENAK	2
III.	BALDINTZEN PLEGUAREN EDUKIA	2
IV.	KONTSULTAREN AZTERKETA LEHIAREN ARLOKO ZUZENBIDEAREN IKUSPUNTUTIK	4
1.	Portu Agintaritzaren izaera	4
2.	Aurretiatzko baimena	5
3.	Arautze onaren printzipioak	5
4.	Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala 7	
5.	BOeko eskaerari erantsi beharreko agiriak.....	9
6.	Eskaerak aurkeztea eta izapidetzea	10
7.	Ukatzea.....	10
8.	Aseguruak.....	10
9.	Bermeak	11
10.	Iraungipena	11
11.	Behin-behineko etenaldia.....	12
12.	Beste gai batzuk.....	12
A.	Atzera egitea.....	12
B.	Ordezkarria izendatzea	12
C.	Paragrafoak zenbakitzea	13

I. KONTSULTAREN AURREKARIAK ETA XEDEA

LEAk 2015eko abenduaren 17an onartu zuen Bilboko portuko zerbitzugunerako lurreko errepide bidezko salgaien garraio-zerbitzu komertzialen baimenen baldintza partikularren plegua. Plegu hori 2016ko urtarrilaren 14ko EHAA n argitaratu zen.



2018ko ekainaren 29an onartu zen LEAko erregistroan Bilboko Portu Agintaritzak bidalitako idatzia. Bertan, Bilboko portuko administrazio-kontseiluak dokumentu hori onartu aurretik, erakunde honi eskatu zion interesgarriak izan daitezkeen ekarpenak egiteko aipatutako pleguaren inguruan. Idatzi horretan adierazitakoaren arabera, pleguan ezarritako aldaketak ezinbestean egin behar dira portuko funtzionamenduan eta ustiapenean metatutako esperientziara egokitzeko, jarduerako araudien aldaketetara moldatzeko eta inplikaturako operadoreen proposamenei erantzuteko.

II. LEA-REN ESKUMENAK

Txostena LEAk eman du, Euskal Autonomia Erkidegoan lehia askearen inguruko gaien aholku-organoa den aldetik, Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legearen 3.5 artikuluan ezarritakoarekin bat eginez¹.

III. BALDINTZEN PLEGUAREN EDUKIA

Baldintza berezien pleguak Bilboko portuan lurreko errepide bidezko salgaien garraio-zerbitzu komertzialerako baimenak emateko araubidea ezartzen du, eta baimen orokorrak (BO) eta espezifikoak (BE) ematen ditu.

Baldintza-agiriak 23 kapitulu ditu, eta gehigarri bat, *Erabilera partekatua duten guneetako lan-arriskuak eta horien prebentzio-neurriak*:

1. kapitulua. Legezko oinarria; 2. kapitulua. Baimenaren araubide juridikoa; 3. kapitulua. Xedea eta Baimen motak; 4. kapitulua. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak; 5. kapitulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa; 6. kapitulua. Eskaerak aurkeztea eta izapidetzea; 7. kapitulua. Baimen orokorren aldaketak; 8. kapitulua. Baimen orokorra berritzea eta indarraldia zehaztea; 9. kapitulua. Eskaerak ebaztea; 10. kapitulua. Erabiltzaileen errolda: titularrak, traktoreak eta gidariak; 11. kapitulua. Sarbideen erregimen eta kontrola; 12. kapitulua. Baimendutako garraiobideen betebeharrak; 13. kapitulua. Aseguruak; 14. kapitulua. Bermeak; 15. kapitulua. Baimenen izaera pertsonala eta transferiezina; 16. kapitulua. Araubide ekonomikoa; 17. kapitulua. Portuko funtzionamendua ez oztopatzea; 18. kapitulua. Betebeharrak fiskalak eta lan-betebeharrak. Lan-arriskuak prebenitzea; 19. kapitulua. Zehapen-araubidea; 20. kapitulua. Baimenak iraungitzeko eta bertan behera uzteko arrazoiak; 21. kapitulua. Izaera pertsonaleko datuak babestea; 22. Kapitulua. Indarrean jartzea; 23. kapitulua. Araubide iragankorra.

¹ 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa. 2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk. Hemen eskuratu daiteke: http://www.competencia.euskadi.eus/z02-contnorm/eu/contenidos/informacion/legislacion_normativa/eu_normativ/legeak.html.



Honako hauek dira aldatutako kapituluak, betiere igorritako dokumentuan adierazitakoaren arabera:

4. kapitulua: baimenen eskatzaileek bete beharreko baldintzak argitzen dira. Zehazki, osatu egin dira jarduera hori gauzatzeko baldintzak. Horrez gain, banan-banan bereizi eta egokitu dira Baimen Orokorraren (BO) eskatzaileek bete beharreko kaudimen ekonomiko eta gaitasun teknikoei buruzko baldintzak. Izan ere, Baimen Espezifikoa (BE) eskatzen dutenak hasierako araubide-posizio berean daude.

Edozein kasutan, 4. kapituluak Baimen Orokorraren (BO) eskatzaileei ezarritako baldintzek honako hauek dituzte oinarri: baldintza objektiboak dira, proportzionalak eta ez-baztertzaileak; gainera, zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzen dute, betiere operadoreen arteko berdintasuna eta baliokidetasuna errespetatuz eta zerbitzuak portuko ustiapenarekin bateragarriak direla bermatuz, eta inolako mugarik eta jarduera gauzatzeko beharrezkoak edo egokiak diren betebeharrak espezifiketatik haratago doan betekizunik gehitu gabe.

Bestalde, 5. kapituluan ezarrita daude zein diren baimen-eskaerekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan egondako aldaketak, 4. kapituluan ezarritakoarekin bat eginez. 6. kapituluan, beren-beregi adierazten da Baldintza Berezien Pleguan baimena ukatzeko aukera dagoela jasotako baldintzak ez betetzeagatik, jarduerarekin lotutako berme nahikoa ez eskaintzeagatik edo portuko ustiapenaren interes orokorrerako arrazoiengatik, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiengatik bada. Edozein kasutan, aplikagarria den arauan jasotako arrazoiak izango dira aipatutako arrazoi horiek.

12. kapituluan baimendutako garraibideen betebeharrak dagokienez, indarrean dagoen baldintza-agiria osatu nahi izan da ibilgailuen eta salgaien arabera eduki beharreko aseguruak eta baimenak aipatuz. Horrekin guztiarekin bi xede lortu nahi izan dira: alde batetik, eskatzaileei aurkeztu behar duten dokumentazioa zein den argitu eta erraztea, eta, bestetik, operadore guztiek jarduera gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazioa (aseguruak, ikuskaritzak, baimenak, etab.) berdintasun baldintzetan egiaztatzea. Era berean, 13. kapituluan xehetasun handiagoz arautzen da baimendunak sinatu beharreko aseguruaren irisgarritasuna portuko zerbitzugunean jarduera gauzatzeko eragindako kalteei dagokienez.



Bestalde, 14. kapituluan jasota dago Baimen Orokorraren (BO) titularrek berme bat izan behar dutela derrigorrez, horrela pleguak araututako jardueraren betebeharrak, zehapen posibleak eta eragin litezkeen kalte eta galerak betetzen direla bermatzeko. Hori guztia bateragarria da Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, irailaren 5ekoak, 139.5.c) artikuluan araututako zerbitzu komertzialen araubidearekin.

Azkenik, eta izaera pertsonaleko datuei buruzko araudietan egon diren aldaketak direla medio, beste kapitulu bat gehitu da, 21. kapitulua hain zuzen, gai hori arautzen duena.

IV. KONTSULTAREN AZTERKETA LEHIAREN ARLOKO ZUZENBIDEAREN IKUSPUNTUTIK

1. Portu Agintaritzaren izaera

Portu Agintaritzak izaera juridiko eta ondare propioak dituzten organismo publikoak dira, jarduteko gaitasun osoa dutenak. Sustapen Ministerioaren mende daude Estatuko Portuen bitartez, eta beren legeria espezifikoak eta dagozkien Aurrekontuen Lege Orokorraren xedapenek arautzen dituzte².

Portu Agintaritzek moldatu egin behar dituzte beren jarduerak ordenamendu juridiko pribatuak ezarritakora, kontratazioan eta ordenamenduak esleitzen dizkien botere publikoen funtzioak gauzatzeko izan ezik.

Portu Agintaritzek eginkizun- eta kudeaketa-autonomiaren printzipio orokorraren mende gauzatzen dituzte beren funtzioak, kalterik egin gabe Sustapen Ministerioak, Estatuko

² EPNZLaren 24. artikuluan daude jasota Portu Agintaritzaren araubidea eta izaera. Dena den, artikulua horretan jasotako araudiaren zati bat ez da aplikagarria kasu honetan; izan ere, agintaritza horien araubidea osatzeko aipatutako lege batzuk indargabetuak edo aldatuak izan dira.

Hala, apirilaren 14ko Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko 6/1997 Legea indargabetu egin zuen urriaren 1eko 40/2015 Legearen c) xedapen indargabetzaile bakarrak. Lege horretako hamabigarren xedapen gehigarriak ezartzen du Portu Agintaritzak eta Estatuko Portuak haien legeria espezifikoaren mende egongo direla, baita aplikatu behar zaizkien azaroaren 26ko 47/2003 Legearen xedapenen eta, ordezko eran, lege horretan ezarrita dagoenaren mende ere.

Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen Legea indarrean jartzearekin batera, aldatu egin da Portu Agintaritzaren kontratazio-araubidea; horrenbestez, lege horretan sektore publikoko erakunde eta botere esleitzaila izanik administrazio publikotzat jotze ez diren erakundeentzat ezarritakoa izango da aplikagarri.



Portuak erakundearen bidez, berari eratzikita dituen ahalmenei, eta autonomia-erkidegoei dagozkien ahalmenei.

2. Aurretiatzko baimena

Pleguak Bilboko Portuan lurreko errepide bidezko salgaien garraio-zerbitzu komertziala gauzatzeko, aurretiatzko baimen bat behar dela ezartzen du. Baimen hori orokorra (BO) edo espezifikoa (BE) izan daiteke. Lehenak, jarduera hori gidari, traktore eta atoi zehatz batzuekin hiru urtez gauzatzeko baimena ematen du. Bigarrenak, aldiz, jarduera gidari, traktore eta atoi zehatzekin 48 orduz gauzatzeko ematen du baimena.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bateginaren (EPNZL) 139.2 artikulua 3ezartzen du Portu Agintaritzaren baimena beharko dela hirugarrenek industria- edo merkataritza-jarduerak edo zerbitzuak emateko. Baimenak dagokion tituluak ezarritako indarraldia izango du. Artikulu horrek gehitu egiten du Portu Agintaritzak agindutako baldintza zehatzak eta betetzekoak diren gainerako arauak bete behar direla zerbitzu eta jarduera horiek gauzatzeko.

Era berean, lege-testu bereko 141. artikulua argitzen duenez, **zerbitzu komertzial** zat joko dira salgaiak entregatzeko, jasotzeko, gordetzeko, mugitzeko eta garraiatzeko jarduera oro, baita salgaien manipulazio-zerbitzuan jasotako beste guztiak ere, 130.1 artikuluekin bat eginez. Horrenbestez, jarduera horiek gauzatzeko beharrezkoa izango da Portu Agintaritzak horretarako baimena ematea.

Lege-lerrun batean dago jasota zerbitzu komertzialak baimentzeko araubidea, eta, beraz, ez da bidezkoa araubide horren beharra edo proportzionaltasuna analizatzea, baina bai baimen horiek emateko pleguetan ezarritako baldintzak aztertzea.

3. Arautze onaren printzipioak

³ 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. BOE, 253. zenbakia, 2011/10/20.



Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (APEL) 129. artikuluan⁴ ezarrita dago zeintzuk diren bere aplikazio-eremuko subjektuek bete beharreko **arautze onaren printzipioak**⁵.

Horrela, legegintza-ekimenak eta araubideak egiteko ahalmenak gauzatuz, Administrazio publikoek **premia-, efikazia-, proportzionaltasun-, gardentasun- eta efizientzia-printzipioekin eta segurtasun juridikoaren printzipioarekin** bat eginez jardun behar dute. Zioen azalpenean edo atarikoan –lege-aurreproiektua edo erregelamendu-proiektua den– behar bezala **justifikatu** beharko da printzipio horiei lotzen zaiela.

- **Beharrizan- eta eraginkortasun-printzipioak:** araugintza-ekimenak interes orokorreko arrazoi baten bidez justifikatuta egon behar du, lortu nahi diren xedeen definizio argi batean oinarritu behar du eta xede horiek lortuko direla bermatzeko tresnarik egokiena izan behar du.

- **Proportzionaltasun-printzipioa:** proposatzen den ekimenak arauarekin bete nahi den premiari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa izan beharko du, eta egiaztatu beharko da, lehenago, ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko dituenik edo xede diren pertsoneri betebeharrak gutxiago ezarriko dienik.

- **Segurtasun juridikoaren printzipioa:** araugintza-ekimena modu koherentean gauzatuko da gainerako estatuko eta Europar Batasuneko ordenamendu juridikoari dagokionez;

⁴ 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. BOE, 236. zenbakia, 2015/10/2. Indarrean jartzea: 2016/10/02

⁵ APELen 2 artikulua: 2. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.

1. Lege hau sektore publikoari aplikatzen zaio. Sektore horretan sartzen dira honako hauek:

a) Estatuko Administrazio Orokorra; b) autonomia-erkidegoetako administrazioak; c) toki-administrazioa osatzen duten erakundeak; d) sektore publiko instituzionala.

2. Honako hauek osatzen dute sektore publiko instituzionala: a) Administrazio publikoari lotutako edo haien mendeko edozein erakunde publiko eta zuzenbide publikoko erakunde; b) Administrazio publikoari lotutako edo haien mendeko zuzenbide pribatuko erakundeak, zeinak lege honetan erakunde mota horientzat ezarritakoaren mende egongo baitira, betiere, beren administrazio-ahalmenak gauzatzen dituztenean; c) Unibertsitate publikoak. Beren araubide espezifikoak izango dute, eta Lege honetako aurreikuspenek ere arautu ditzakete modu osagarrian.

3. Administrazio Publiko izango dira Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegoetako Administrazioak, Toki Administrazioa osatzen duten entitateak eta 2. zenbakiko a) letran aurreikusitako erakunde publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak.

4. Zuzenbide publikoko korporazioei dagokienez, beren araudi espezifikoari jarraituko diote legez esleitu zaizkien edo administrazio publikoren batek delegatu dizkien eginkizun publikoak betetzean, eta, modu osagarrian, lege honi jarraituko diote.



horrela, arau-esparru egonkor bat, aurreikusteko modukoa, integratua, argia eta ziurtasunez betea sortuko da. Horri esker, errazagoa izango da arau horiek ezagutu eta ulertzea, baita, beraz, pertsonak nahiz enpresek jarduerak gauzatzea eta erabakiak hartzea ere.

- **Gardentasun-printzipioa:** Administrazio publikoek indarrean dagoen araudirako eta arau hori sortzeko dokumentuetarako irispide erraz, unibertsal eta eguneratua bermatuko dute abenduaren 9ko Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 Legeak 7. artikuluan ezarritakoaren arabera. Argi eta garbi definituko dituzte araugintza-ekimenen xedeak, baita haien justifikazioa ere. Azken hori hitzaurrean edo zioen azalpenean egingo da. Horrez gain, hartzaile potentzialek ahalbidetuko dute arauak egiteko prozesuan parte-hartzea aktiboa izatea.

-**Efizientzia-printzipioa:** Araudiak beharrezkoak ez diren administrazio-kargak edo karga osagarriak saihestu behar ditu, eta bere aplikazioan baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu.

Onartutako araudiaren aldaketak aipatutako printzipio horiek bete beharko ditu, eta, edonola ere, ez lieke ezarri behar operadoreei ezarritako xedea lortzeko beharrezkoa eta/edo proportzionala ez den sarrera-hesirik edo lehia-mugarik .

4. Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala

Igorritako zirriborroak dakartzan berritasunetako bat pleguei buruzko 4. artikuluan egindako gehikuntza bat da: 4.2 apartatua gehitu da, eta, hala, BOaren eskatzaileek ekonomia- eta finantza-kaudimenei eta gaitasun tekniko eta profesionalei dagozkien baldintza jakin batzuk bete beharko dituzte.

Lizitazio publiko bat aztertzen ari garen arren, egia da enpresei gutxieneko kaudimena eta gaitasuna izateko eskaera nahitaez bete beharreko baldintzetako bat dela sektore publikoko erakundeek deitutako lizitazioetan adjudikaziodunak izateko⁶. Horretarako, enpresariak bete

⁶ Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) arabera,⁶ sektore publikoarekin kontratuak egin ahal izateko, enpresaburuek **gutxieneko baldintza batzuk** bete beharko dituzte, kontratazio-organoak edo, hala badagokio, dagokion sailkapenak ezarritako ekonomia- eta finantza-kaudimenei eta gaitasun profesional edo teknikoari dagokienez.

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 74. artikulua eta ondorengoak. Lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB)



beharreko baldintza minimoak eta baldintza horiek egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak zeintzuk diren ezartzen da. Gainera, ezinbestekoa da eskatutako kaudimena eta gaitasuna **kontratuaren xedeari lotuta egotea eta xede horrekiko proportzionala izatea,**

Kaudimena eta gaitasuna bereizi ditugu; alde batetik, **ekonomia- eta finantza-kaudimena** dugu, , kontratuak ekonomia-gaitasun faltagatik behar bezala gauzatzeko arriskurik ez izatea bermatzen duena, eta, bestetik, **gaitasun tekniko edo profesionala**, antzeko kontratuetan metatutako esperientziarekin eta kontratu horiek egikaritzeko langile eta baliabide tekniko nahikoa izatearekin lotuta dagoena.

Kaudimen eta gaitasun egokia dagoela bermatzeko, banan-banan aztertu behar da kasu bakoitza; izan ere, ez dago objektua eta kontratatzeke dagoen prestazioa ezberdinak diren bakoitzean aplikagarria den kaudimen-arau orokorrik, eta, beraz, gauzatu behar den prestaziora egokitu behar da.

Honako ekonomia- eta finantza-kaudimena eskatzen du igorritako pleguak: *60.000 eurotik gorako funts propioak izatea edo BOa eskatu aurreko urtean 7.000.000tik gorako negozio-zifra izatea salgaien lurreko garraioaren jarduerari dagokionez*. Dena den, ez da aurkitu eskatutako zifrak erkatzeko parametrorik. *A priori*, ez dirudi 60.000 euroko funts propioak eskatzea 7 milioi euroko fakturazioa eskatzearekin bat datorrenik. Printzipioz, gehiegizko negozio-bolumena dela irudi; horrenbestez, gomendagarria da espedientean eskatutako zifraren justifikazio ekonomikoa gehitzea edo zifra hori murriztea.

Bestalde, Pleguan ez da atalaserik ezarri beharrezkoak izango diren baliabide materialen eta gidari kopuruaren kaudimen tekniko baloratzeko; gauzak horrela, ezin dugu ezer esan horien egokitasunari eta proportzionaltasunari buruz. Edozein kasutan, Portu Agintaritzak ezarritako baldintza minimoak egingo diren zerbitzuen objektuari lotuta egon behar dute, proportzionalak izan behar dira eta ezin izango dute operadoreen arteko bazterketarik ezarri. Horrez gain, ezin izango da interes orokorreko arrazoiek justifikatzen ez duen sarrera-hesirik ezarri.

eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. BOE, 272. zenbakia, 2017/11/9. Indarrean jartzea: 2018/03/09



5. BOeko eskaerari erantsi beharreko agiriak

5.1.g) apartatuan adierazten da 4.2.1 kapituluaren jasotako ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko dokumentazioa **erantzukizunpeko adierazpen** batekin ordezkatu daitekeela.

Baldintzak betetzen direla erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez egiaztatzeko aukerak erraztu egiten ditu operadoreek aurkeztu beharreko dokumentazioari loturiko lanak, eta, beraz, positiboki baloratu dugu. Alabaina, aukera hori ez da jaso 4.2.2 kapituluaren jasotako gaitasunaren kasuan, eta, hortaz, aukera hori ere gehitzea gomendatzen da.

5.1.h) apartatuan, azken hiru urteetan egindako lanen zerrenda bat aurkezteko derrigortasuna jasotzen du pleguak.

Apartatu hori gehitzean, kaudimena egiaztatzeko beste derrigortasun bat ere ezartzen da: salgaien errepide bidezko garraioan **aurretiko esperientzia izatea**, eta hori 4.2.2 kapituluaren jasota egon beharko litzateke.

Orokorrean aipatu behar da, efizientzia-printzipioak eskatu bezala, operadoreei beharrezkoak ez diren administrazio-kargak eta karga osagarriak ezartzea saihestu behar dela, besteak beste, **dokumentuak birritan aurkeztea**.

Hauteman da pleguaren 4.1 apartatuan eskatzen den dokumentazioa dagoeneko aurkeztuta izan dezaketela operadoreek jarduera gauzatzeko; izan ere, baimenak eska ditzakete martxoaren 20ko FOM/734/2007 Aginduak edo ordezkoko arau batek araututako salgaien garraiorako baimena duten operadoreek⁷. Salgaien garraiorako baimena lortzeko hainbat baldintza bete behar dira, eta horietako batzuk Portu Agintaritzak eskatutakoekin bat etor

⁷ Hainbat baldintzaren artean, 10. artikulua honako hau eskatzen du baimena lortzeko:

- Kasu bakoitzean agindu honen arabera dagokion ibilgailu kopuru minimoa izatea, gutxienez.
- Salgaiak garraiatzeko jarduera gauzatzeko gaikuntza profesionalaren baldintza betetzea.
- Agindu honetan aurreikusitakoarekin bat eginez, ohoragarritasun-baldintza betetzea.
- Agindu honetan aurreikusitakoarekin bat eginez, kasu bakoitzari dagokion gaitasun ekonomikoa izatea.
- Indarrean dagoen legeriaren arabera betebeharrak fiskalak betetzea.
- Indarrean dagoen legeriaren arabera lan- eta gizarte-betebeharrak betetzea.



daitezke. Horrexegatik, agiri berak birritan eskatzen ez direla egiaztatzea gomendatzen da, baita aurretik egiaztatutako gaitasun- edo kaudimen-baldintzak ez eskatzea ere.

6. Eskaerak aurkeztea eta izapidetzea

6.3 eta 16. apartatuek ezartzen dute titulua emateagatiko ordainketa eska daitekeela. Portu Agintaritzak tituluak emateagatiko kostua kobratzea erabakitzen baldin badu, kobratuko diren tarifak webgunean jartzea gomendatzen da, operadoreek ezagut ditzaten.

7. Ukatzea

Pleguko 6.4 zenbakian baimen-eskaera ukatzeko egon daitezkeen arrazoiak biltzen dira. Portu Agintaritzak baimenak ez emateko nolabaiteko eskumena duenez –pleguaren arabera, ukoa erabaki dezake baldin eta ez *badira berme egoki edo nahikoak eskaintzen gauzatu nahi den jarduerari lotuta, ezta jarduera horiek portuko erabilerekin eta funtzionamendu operatiboarekin bateragarriak izatearen inguruan ere edo portuko ustiapenari loturiko interes orokorregatik, behar bezala justifikatuta*– , ahalmen horrekin zuhurtzia handiz jokatzeko gomendatzen da, eta modu zehatzean eta salbuespenez erabiltzea, operadoreen artean bazterkeriarik edo justifikatu gabeko hesirik ez inposatzeko.

8. Aseguruak

13. kapituluan jasotzen da nahitaezko aseguruak izateko obligazioa. Hala, erantzukizun zibileko aseguru bat eduki behar da, *gutxienez 6.000.000 euroko estaldura duena portuan sor litezkeen kalte eta galerei erantzuteko* . Pleguko apartatu horrek gai horren inguruko derrigorrezko araudiari egiten dio erreferentzia: baimenaren titularrak bere kontura kontratatu beharko du aseguruak, eta indarrean egon beharko dira legez nahitaezkoak diren aseguruak baimenaren indarraldian zehar.

Pleguetan aseguruak gehitzeak operadoreen obligazioak argitzeko xedea du; horrenbestez, argiagoa izango litzateke zuzenean aipatzea zein den gai horren inguruko nahitaezko araudi aplikagarria.

Edozein kasutan, eskatutako aseguru hori estalitako arriskuaren izaeraren eta irismenaren arabera izan behar da, eta aseguratu beharreko objektuarekiko karga ekonomiko



desproporzionatua lekarketen eskakizunak ekidin behar dira. Zentzu horretan, 6.000.000 euroko zifra ezartzeak dokumentazio bidezko justifikazioa izan behar luke; izan ere, *a priori*, eta beste plegu batzuetan oinarrituz (*Algecirasko Badiako Portu Agintaritzaren entrega, jasotze eta salgaien manipulaziorako beste operazio batzuen Baldintza Berezien Pleguan*), 150.000 euroko aseguru-kapital eskatzen da orokorrean eta 25.000.000 eurokoa salgai arriskutsuentzat.

9. Bermeak

14 . kapituluak jasotzen du derrigorrezkoa dela berme ekonomiko bat osatzea, *gutxienez 500.000 eurokoa, eta Portu Agintaritzak urtero berrikusi ahalko duena* jardueratik eratorritako obligazioak bermatzeko xedez.

Eskatutako kopuru hori estalitako arriskuaren izaeraren eta irismenaren arabera izan behar da, eta kontuan hartu beharko litzateke jarduera egiteagatik aseguru bat ere eskatzen zaiela operadoreei. Zentzu horretan, zifra hori ezartzeak dokumentazio bidezko justifikazioa izan behar luke; izan ere, *a priori*, eta beste plegu batzuetan oinarrituz (*Algecirasko Badiako Portu Agintaritzaren entrega, jasotze eta salgaien manipulaziorako beste operazio batzuen Baldintza Berezien Plegua* eta *Melillako Portuko zerbitzugunean salgaiak lurretik garraiatzeko jarduerak egiteko Baldintza Berezien Plegua*), 150.000 euroko aseguru-kapitala eskatzen da orokorrean eta 25.000.000 eurokoa salgai arriskutsuentzat.

10. Iraungipena

20. kapituluak baimena iraungitzeko kausak jasotzen ditu. Apartatu berri bat gehitu da, eta apartatu horren arabera, ez-betetze larriak eta oso larriak zerrenda itxi bat izatetik zerrenda ez-exhaustibo izatera pasa dira; hau da, Portu Agintaritzaren eskuetan dago erabakia. Kontuan hartuta batzordeak ez-betetze larria edo oso larria egon dela erabakitzeak dituen ondorioak, gomendatzen da oso zuhur ibiltzea horrelako kasuetan eta operadoreei diskriminaziorik eta justifikatu gabeko barrerarik ez inposatzea.

Gomendagarria litzateke argi uztea zein kasu kontsideratzen diren ez-betetze larri eta zein oso larri, eta ez dirudi proporzionatua denik bi ez-betetze mota ezberdinek ondorio bera izatea.



Gomendatzen da pleguetan adieraztea nola bermatuko den prozeduran zehar alderdien entzunaldiaren izapidea.

Azkenik, gomendatzen da argi eta garbi idaztea beste baimen bat eskatu ahal izateko urtebeteko epea aplikatuko dela ez-betetze larri edo oso larriengatiko baliogabete-kasuetan bakarrik.

11. Behin-behineko etenaldia

20. kapituluak baimenen behin-behineko etenaldirako kausak zeintzuk diren jasotzen du. Segurtasun juridikoko printzipioari jarraikiz, gomendatzen da argi adieraztea zer kontsideratzen den «ez-betetze larri portuko gaietan», aintzat hartuta zeintzuk diren ez-betetze larria deklaratzearen ondorioak.

Era berean, gomendatzen da pleguetan adieraztea nola bermatuko den prozeduran zehar alderdien entzunaldiaren izapidea.

12. Beste gai batzuk

A. Atzera egitea

6.1.1.1 apartatuan huts bat dago. Aipatutako APELen 66. artikulua ez du atzera egitearen figura arautzen, baizik eta interesdunak hala eskatzen duelako prozedurari hasiera ematea. 68. artikulua arautzen du atzera egitea,⁸; horrenbestez, zuzentzea gomendatzen da.

B. Ordezkarria izendatzea

⁸ 68. art. Eskaera zuzendu eta hobetzea

1. Hasierako eskaerak 66. artikuluan adierazitako betekizunak betetzen ez baditu, eta, hala badagokio, 67. artikuluan adierazitakoak edo ezar daitekeen berariazko legedian adierazitakoak betetzen ez baditu, interesduna errekerituko da, hamar eguneko epean konpon dezan hutsunea, edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan, eta ohartarazi egingo zaio, hala egin ezean, bere eskaerari uko egin diola balioetsiko dela, 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan idatzi behar den ebazpena egin ondoren.



Pleguko 4.2.2.3 apartatuak, gaitasun tekniko eta profesionalari dagokionak, aipatu egiten du baimenaren titular bakoitzak Bilboko Portu Agintaritzarekin hitz egiteko gaitasuna duen ordezkari bat izendatu beharko duela Bilboko Portuan.

Obligazio horri arazorik ikusten ez diogun arren, ez du inolaz ere enpresen gaitasunarekin zerikusirik; gauzak horrela, figura hori mantentzea erabakiko balitz, egokia litzateke titulua aldatzea.

C. Paragrafoak zenbakitzea

5. kapituluak eskaerekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa arautzen du. 5.3 zenbakiaren aurreko paragrafoak ez du zenbakirik.

Aintzat hartuta paragrafoaren edukia, badirudi Portu Agintaritzari aurkeztu beharreko dokumentazio guztiari egiten diola erreferentzia, ez bakarrik BEari; horrenbestez, dagokion zenbakia jartzea gomendatzen da (5.3), eta, horrela, egun 5.3 3 zenbakia daramana 5.4 izatera pasatuko litzateke.

20. kapituluan ere akatsak daude zenbakietan, eta zuzentzea gomendatzen da.

Adierazi beharra dago Lehiaren Euskal Agintaritzak emandako erantzuna, otsailaren 1eko Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen 3.5 artikulua ezarritakoaren arabera eman dela. Erantzun honek kontsultan emandako informazioa du eskusiboki oinarri eta planteatutako auziaren inguruan indarrean dauden prozeduren eta araudien gaineko informazio orokorra ematea du xede. Hori dela eta, ezin daiteke inolaz ere Lehiaren Euskal Agintaritzarentzat lotesletzat hartu.

Bilbo, 2018ko uztailaren 9a